


## Europa eta gu geu

**Ignazio Aiestaran**  FILOSOFOA

 Batzuek erraten digute Europa infernua dela, eta beste batzuek zerua dela. Egia erran, Europak amets interesgarri batzuk eskaini dizkigu: giza eskubideen eta gizabanako askearen asmakuntza, zientziaren aurrerapena eta erantzun teknologikoak, nazioarteko zuzenbidea eta arte ederretako estetika, inprenta eta liburuen literatura, ongizate-estatu demokratikoa eta elkartasuna, besteak beste. Dena dela, Europak amesgaiztoak ere ekarri dizkigu: nazismo eta estalinismoaren totalitarismoa, kolonialismoa eta esklabotza, zuriarren arrazakeria eta patriarkalismo matxista, kapitalismo basatia eta inperialismoa, poluzioa eta hondamen ekologikoa, ahozko kulturen zapalkuntza eta erabateko gerra, kristauak ez diren mitoen desagertzea eta inkisizioa, eta beste horrenbeste. Europa hau guztia izan da: Epiktetos eta


Kaligula, Asisko Frantzisko eta Torquemada, Paul Celan eta Adolf Hitler.

Europa sozioekonomiko berria onuragarria edo kaltegarria izanen da kultur arloan gure ikuspegitik? Nola den. Hein batean gure esku dago, gu ere Europa baikara aspaldian, behin eta berriro Koldo Mitxelenak errepikatu digun erara. Egiten dugunaren arabera, halakoxea izango da gure etorkizuna.

Ikus dezagun, XX. mendeko bi argibide historiko (lehen ezkorra eta bigarrena baikorra) jarriko ditut, totalitarismo eta nazismoari buruzko bi kasu, alegia. 1937an Durango eta Gernikaren bonbardaketak suertatu zitzaizkigun, Franco jeneralaren eta Alemania nazien aire-armadaren menpean. Urte batzuk beranduago, Nurembergeko auzitegian III. Reicheko aire-indarren ministroa zenak, Herman Göringek, adierazi zuen Euskal Herrian egindako bonbardaketak ezinbesteko probalekuak izan zirela, Bigarren Mundu Gerrako atari europarra izanik. Durango eta Gernikako zehar-kalteak gertatu baino lehenago, 1928an, intelektual militar alemaniar batek, Ernst Jüngerrek, idatzi zuen erabateko gerraren bonbardaketak aurreikusiz eta Alemaniako aire-armada handi eta boteretsua eskatuz. Ernst Jüngerren idazlan batzuk nazismoaren gida bilakatu ziren.

Hamarkadak iraganik, demokraziaren garaian, Euskal Herriko Unibertsitateak *honoris causa* doktore izendatu zuen Ernst Jünger, laudorio eta ohoreen artean. Ernst Jüngerrek, ordea, ez zuen sekula santan barkamenik eskatu, ezta bere lehengo iritziak jendaurrean kritikatu ere. Hauek dira gure oroimen eta kultura historikoak.

Bigarren adibidera noa orain, nazismoaren eskutik berriz ere (nazismoa Europako gauza txarretako bat delakoan). Europako azken filosofo handienetako batek erabaki ikaragarria hartu

zuen totalitarismoaren tenorean: unibertsitate nazian errektore bihurtzea. Horretarako bere adimena eta hitza jarri zituen Führerren kulturaren esanetara. Urte haietan esan zuen benetako jakinduria antzinako Grezian eta, jakina, Alemanian zetzala —beste inon ez—, kultura indoeuroparra aldarrikatuz. Geroago, nazismoa utzi zuen baina ideia hauek ez. Egun batean, 60ko hamarkadaren amaieran filosofo hau arte eta espazioari buruzko saio bat izkiritzeko abian jarri zen. Bere saioa ilustratzeko asmoz, Europako artista batzuei irudiak eta lanak eskatu zizkien. Bukieran, paradoxen paradoxan, kultura indoeuroparretik, antzinako Grezian edota Alemaniako kulturatik ez zetorren artista bat, Eduardo Txillida, euskal kultura preindoeuroparrean jaioa, aukeratu zuen. Horrela euskal artista batek egundoko ikasbidea eman zion Martin Heideggerri. Beraz, eta hori da adibide baikorra, gure esku dago Europa beltzari ikasbide anitz prestatzea. 

tek. Europaren baitan dagoen aberastasuna nabarmendu dute guztiek. Mendiguren, esaterako, Europaren bi mila urte baino gehiagoko tradizioaz mintzo da, eta kultur balio partekatuen multzoa dela gaineratu. «Batetik, aniztasun eta desberdintasun ugari dago, eta, bestetik, askozaz batasun sendo eta elkartuago izateko potentziala. Etorkizunean, munduan gidaritza ezar dezakeena».

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i idazle eta hizkuntzalariak ere azpimarratu du ahalmen hori. «Herri multzo bat izan da Europa. Eta aberastasuna multzo horretan dago. Eta zabalatasun eta aniztasun horrek, eta mundu guztiarekin tratatu behar horrek aberastasuna ekarriko luke». Baina Txillardegi ere kezkatuta agertu da, tentuz mintzatu da. Izan ere, eraikuntza horren irizpideak zeintzuk diren kontuan hartu beharreko-

**Josu Larrinaga** • «Kultur ekintzak ekimen pribatuaren esku utzi nahi ditu zerbitzuen merkataritza akordioak»

**Aitor Zuberogoitia** • «Komunitate propioa zurkaiztu nahi badugu, geure hizkuntzaren arabera erantzun propioak bilatu behar ditugu»

**Eduardo Gil Bera** • «Betiko moduan, arriskuak eta mehatxuak izatekotan, euskal kulturaren beraren baitan izango dira»

**Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi • «Europa plurala eraikiz gero, ongi. Aitzitik, interes pribatuen arabera sortuz gero, ez du ezer onik ekarriko»**

**Jon Sarasua** • «Europaren prismetik irten eta ikuspegi globala erabiliz gero, zenbait ikuspegi aldatu egiten dira»

**Xabier Mendiguren Bereziartu** • «Europaren uniformitatearen aurrean, aniztasunaren altxor hori baliaraztea da Europaren etorkizuna»

ak dira, bere esanetan: «Gakoa zera da: Europa hori nola eraikiko den. Europa plurala egingo balitz, ongi. Baina, aitzitik, orain artean legez, interes pribatuen eta estatuen arabera eraikiko bada, ez da ezer onik irtingo hortik. Herri txikiak are eta txikiago izango gara halako kasuan. Herri txikiok beti dugu problema gure txikitasunean. Batzuetan, *batasun* kontzeptu horrek beldurtu egiten nau».

### Lekua bilatu

Beste modu batera ekin dio Jon Sarasua bertsolari, idazle eta irakasleak. Europako ikuspegia gaintu behar dugula esan du. «Garbi dago gure gizarteko ahalduen ikuspegia Europa dela: 'Europari moldatu behar gatzazkio'; 'Europa da erdua' eta abar. Eta, uste dut, hainbat adibidek aurpegi ezberdina erakusten dutela ikuspegi europarretik ikusiz gero, edo ikuspegi global batetik begiratuz gero. Europaren prismetik irten eta ikuspegi globala erabiliz gero, zenbait gauza aldatu egiten dira». Hala ere, eta beste hainbatek bezala, Europa zaharraren aberastasuna ere kontuan hartzekoa dela nabarmendu du. «Eta gu ere hor gaude; eta hor egongo gara».

Mendigurenek ere hortik jo du, eta komunitate txikiek Europaren baitan kokagune eroso aurkitu behar dugula adierazi. «Europak hizkuntza eta kultur aniztasuna ere badu, eta, zoritxarrez, oraindik bakoitzari bere leku eroso eta emankorra esleitzen ez du asmatu, estatu nazio deituek elkarrizketa emankorrek bere baitan antolatuta ordez, gainezarpenezko harremanetara behartu dituztelako hainbat herri eta kultura. Hori aldatu beharra dago, eta gurea bezalako hizkuntza eta kultur komunitate zatiakuek eta menderatuek ezinbestekoa dute beren buruaz jabetzea eta Europaren baitako testuinguruan kokagune eroso bilatzea».

Zuberogoitiak ere geure premiei erantzuteko bide propioak bilatu behar ditugula esan du. «Europa barruan komunitate propioa zurkaiztu nahi badugu, ezinbesteko lana izango dugu geure hizkuntzaren eta hiztunen arabera erantzun propio eta originalak artikulatzea». Aitzitik, kalitatearen aldeko apustua egiten du berak; «Erantzun propioak bilatu beharrean aldamenekoena kopiatu nahian bagabiltza, hiztunek hizkuntza komunitatea utzi eta zuzen-zuzen aldamenekora joko dute, kopia beti delako originala baino kaskarra. Beraz, geure egoeraren analisia, eta, kantitatea baino gehiago kalitatea izan behar ditugu habe nagusi».

Esperientzia ez zaigula falta dio Sarasuak, eta konfiantzaz aritu da. «Izan ere, euskal komunitateak badauka gizaldi eta testuinguru historiko askotatik jasotako esperientzia; eta, beraz, badugu moldatzeko gaitasuna; inguruko beste zenbait hizkuntzak, komunitatek, estatuek eta organismok baino gehiago. Hainbat inbasiori, inperiori, testuinguru historikori eta aldakuntza handiri egin diogu aurre. Europako hau beste bat gehiago da. Beraz, aurre esperientzia horrek zerbaitetarako balio behar harko liguke».

Gure beharren arabera Europa kulturala nahi badugu, lan egin behar harko dugula esan du Mendigurenek, bere esanetan, ez baitigu inork ezer oparitu. «Globalizazioak ezartzen duen uniformetasunaren aurrez aurre, aniztasunaren altxor hori baliaraztea da Europaren etorkizuna. Fedea eta lana ezinbestekoak izango dira, baita pixkanaka orain arte baino askozaz gehiago elkar ezagutzea ere. Ezagutzen ez denik ez da maitatzen ezta prezatzen ere».

Europako Batasuna eraikitzekeo prozesua ez da ez beltza ez zuria, Sarasuaren esanetan. «Zer izango duen onerako eta zer txarrerako aurreikustea oso zaila da. Garbi ikusten da Europan kristoren potentzia dagoela: bai duen tradizioagatik, bai aniztasun kulturalagatik, baita mundu mailan dituen zenbait konkista sozialengatik ere. Hala ere, ez dezagun pentsa hori denik globoa. Baina, bestetik, baloratu dezagun hor dagoen izugarritzko potentziala».